

ZINEA / 2020-10-21

## Urriko azkena, Euskal Zinema Dokumentalaren astea Gasteizen

Egilea **Erredakzioa** | 21 urria, 2020

**Urriaren 26tik 30era egingo dute Gasteizko Vital Fundazioaren kulturunean Euskal Zinema Dokumentalaren VI. Astea. Urteroko zitan euskal sortzaileen dokumental esanguratsuenen aukeraketa bat eskaintzen dute, eta aurtengoan, lau luze eta hiru laburrek osatuko dute programa.**

Euskal sorkuntza anitzaren erakusle izan ohi da Vital Fundazioak Gasteizen antolatzen duen Euskal Zinema Dokumentalaren Astea. Bost egunez, gaurkotasun eta kalitate handiko proiektuak izaten dira ikusgai, eta hartzaileengana heltzeko asmoz, sarrera doakoa izaten da. Emanaldien hasieran, halaber, filmaren aurkezpena egiten dute, eta ostean, ikusitakoaren inguruko eztabaida eta solasaldia.

Bada, ekimenaren VI. edizioa urriko azken astean egingo dute, astelehenetik ostiralera, iluntzeko 19:30ean, eta bost emanalditan zazpi lan emango dituzte. Besteak beste, gerrako errefuxiatuen drama, Donostiako lehen eskola klandestinoak eta arma merkataritza izango dituzte hizpide.

Zikloa ***Awlad, hesiak gainditu*** dokumentalaren hasiko da. Ane Irazabal euskal kazetariak eta Cosimo Caridi kazetari eta zinemagileak zuzendutako proposamenak Mohamed, Aya, Hadi eta Muzhda haur errefuxiatuen bizitza pantailaratuko du. Beren haurtzaroa aldarrikatuko dute, eskolara joateko eta normaltasuna berreskuratzeko duten eskubidea.

<https://vimeo.com/373858682>

Asteartean, ostera, **Larraitz Zuazoren Bai, bagara** lana eskainiko dute. Iñaki Goirizelaiak euskal berezitasunerantz egindako bidaia jarraituko du, eta AEBetara joandako euskal migratzaileen testuinguruan, *road movie* formatuan, euskaldunon balioak azalduko ditu.

<https://vimeo.com/373858682>

Asteazkenean, berriz, film laburren txanda izango da, eta **Jorge Moneoren Orbainak, Josu Veneroren eta Jesus Mari Lazkanoren Artiko, eta**

**Raul de la Fuenteren *Infernua*** emango dituzte. Hiru proiektuen atzean dauden istorioak eta haiek lantzeko moduak erabat ezberdinak dira.

<https://vimeo.com/308577842>

<https://vimeo.com/352676609>

<https://vimeo.com/352676716>

Ostegunean **Maidar Oleagaren *Muga deitzen da pausoa*** dokumentala proiektatuko dute, Elvira Zipitriari eskainitakoa. XX. mendeko euskal kulturaren eta politikaren figura garrantzitsua izan zen Zipitria, eta Donostiako Alde Zaharrean euskarazko eskola klandestinoak sortu zuen Francoaren garaian.

<https://vimeo.com/297656434>

Eta zikloari amaiera emateko, **Gerra hemen asten da** indartsua emango dute, **Joseba Sanz** zinegilearena. Ignacio Robles suhiltzaileak Bilboko portuan hartutako erabakia du ardatz lanak: Saudi Arabiara zihoan arma kargamentuan parte hartzeari uko egin zion, armen merkatuaren interes ilunei babesik ez emateko.

<https://youtu.be/i0Z9jrfCUak>

Esteka: <https://www.zinea.eus/2020/10/21/euskal-zinema-dokumentalaren-vi-astea/>